

“TEKNOLOGIA BALIAGARRIA DA EKINTZALEITZARAKO. HORIXE DA IRAKASPENIK ONENA”



Aita Larramendi Ikastola / Batxilergoa

Potju, Aita Larramendi ikastolako Batxilergoko taldea, izan da bere kategoriako irabazle Ikono planeta fasean. Zimaik taldearen kasuan bezala, Gorka Matute da taldearen arduraduna.

Nabaritzen dute ikasleek lehiaketaren fase hau irabazteak dakarren ezagumendua?

Bai, ikasleak jakitun dira ongi egin dutela lana eta emaitza on batekin sarituak izan direla.

Nola hartzen dute sarituak izan direla jakitea?

Poz handiarekin hartzen dute emaitza. Hurrengo faseetan lana gogo gehiagoz egiteko akuilua izaten da.

Fase honetan finalista izateak motibatzen al ditu ikastetxeko beste talde batzuk?

Bai. Ikasle guztiak lortu nahi dituzte emaitza onak eta talde batek hori lortzeak besteentzat motibagarria da, ondoan dute gauzak txukun egiten dituen eredua eta besteek ere hori nahi izaten dute.

Zalantzak izan zenituzten garatu beharreko gaia aukeratzeko?

Ez zuten zalantzarik izan gaia aukeratzeko. Oso garbi zuten hasieratik zein gai landu nahi zuten.

Zer zailtasun gainditu behar izan zenituzten lana egiteko?

Horrelako proiektuetan antolaketa izaten da zailena. Lanak banatzea, rolak definitzea, bakoitzaren zereginak identifikatzea eta ardurak hartzea.

Zein da gai honetatik ateratzen duzuen irakaspn nagusia?

Ekintzailetasuna teknologia berriak erabiliz. Nire ustez, bi kontzeptu hauek oso ongi uztartzen dira eta ikasleak ekintzailetasunaren baloreak, talde lanean eta teknologia berriak modu egokian erabiliz barneratzen dituzte.

Zer espero duzue Kosmodisea ekimenaren gaineraketik?

Orain arte aritu diren modura jarraitzea, motibaturik eta gogoarekin lana eginez.